

Oñatiko ermittak

Oñatikaspalditik edukidukristautasunarekin lotura estua. Herriaren ermita asko daude; inguruko herrietan baino askoz gehiago. 18 ermitaren izenak jaso dira eta Oñati moduko herri batentzat asko dira. Esaten dutenez, 1000 urte inguruan Oñati herririk osatuta zegoen eta hauek sakabanatuta zeuden. Herrirka bakoitzak bere tenplua zuen: ermita. Gero herririkak batzean ermita askoko herria bihurtu zen Oñati.

Denak lantzea ezinezkoa denez, San Elias ermitako istorio bat kontatuko dugu hemen.



San Elias ermitaren lehenengo aipamenak 1691 urtekoak dira. Jaturabeko mehar-gunearen bestaldean dago Orkatzategi mendiko paretetan. Historiako pasarte askotan agertzen da leku hau, lapur eta iheslari askoren gordeleku izan baitzen. Gainera, kondaira asko gordetzen ditu bere baitan. Orain ermita dena, lehen koba txiki bat zen.

Kondaira batek dioenez, San Elias Arabako Narbaxa herrikoa zen. Bertako bizilagunen pekatuak eta lizunkeriak salatzen zituen etengabe eta Narbaxako bizilagun guztiak kokoteraino zeuzkan. Bizilagunak gogaituta zeudenez, San Elias herritik harrika botatzea erabaki zuten. Orduan Araozko Sandaili koba honetan ezkutatu zen. Gerora bere izenean ermita bat eraiki zuten.

